

IRABAZI-ITURRIAK

Gure irabazi-iturriak, alde batetik umeentzako karroak egiten dituzten enpresei produktua salduz lortuko dugu eta beste aldetik gure denda propioan jadanik karroa duten baina gure instalazioa ez duten bezeroei gure produktua salduz lortuko dugu. Gure produktuaren prezioa ez da aldatuko merkatuaren egoeraren arabera, aldagai finko edo estatiko batzuek definituta egongo da.

Produktuaren prezioa, karroak egiten dituzten enpresen produktuen arabera izango da, nahiz eta karro batetik bestera, prezioa antzekoa den. Prezio hau, karroaren kalitatearen arabera izango da, hau da, gure produktuak prezio bat izango du karro saltzaileentzat baina karroak egiten dituzten enpresek beraien karroei prezio bat finkatuko diete. Produktuaren prezioa 55€koa izango da, nahiz eta enpresen kasuan kantitate handiagoan eskatu ezker, negoziatu egingo genuke beti 30€tik jaisten ez bada.

Hasiera batean normala den bezala irabazi-iturri handirik izango ez ditugunez, proiektua aurrera eraman ahal izateko, eta horren beharrezkoak diren irabaziak sortzeko, diru sarrerak beharko ditugu. Lau partaidetako bakoitzak, 1000€ jarri beharko ditu proiektuari hasiera emateko. Horrela, 4000€ izango ditugu proiektuari aurre egiteko. Laboral kutxan 2000€ ko mailegu bat ere eskatuko dugu, bertan eskaini baitigute aukera onena.

Produktua saltzeaz gain, gure webgunean publizitatea jarriz ere izango ditugu irabazi-iturriak. Gure kalkuluen arabera, hilean 45€ inguru jasoko genituzke. Gehiegi ez den arren, lehenengo urteetarako lagungarria izango zaigu.

Kalkulatzen dugunez, urtean 99.040€ko diru-sarrerak izango ditugu, gastuak kontuan hartu gabe.

Laburbilduz, irabazi iturri gehienak aktiboen salmentan koncentratzen dira, hau da, gure produktuaren salmentan.